

Olga Fotinopoulou Basurko



2009. urtetik UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle titularra da. Zuzenbidean doktorea (2004) eta doktoregoko sari berezia (2006). UPV/EHUko "Lanaren eta Garraioaren Zuzenbide Transnazionala" ikerketa taldeko ikertzaile nagusia da eta, aldi berean, Europako "Maritime Work Watch" ikerketa taldea zuzentzen du (<http://www.maritimeworkwatch.eu/es/home>) —Itsasoko Lan Zuzenbideko Europako ikertzaileak biltzen dituen ikerketa taldea da—.

Fotinopoulou irakasleak zenbait monografia argitaratu du, eta zuzendari koordinatzaile gisa obra kolektibo ugari koordinatu du, baita liburu kapituluak eta doktrina artikuluak ere, gehienbat bere ikerketa ildo nagusiekin lotuak: *Itsasoko Lan Zuzenbidea* eta *langileen nazioarteko mugikortasuna*.

Ikertzaile nagusi gisa Europako Batzordeak, Zientzia, Berrikuntza eta Unibertsitate Ministerioak eta UPV/EHUk finantzatutako ikerketa proiektu ugari zuzendu du 2006. urtetik gaur egunera arte. Une honetan, estatu mailan koordinatutako "*Lanaren zuzenbide transnazioanaleko eredu berri baterantz*" izeneko proiektu bateko ikertzaile nagusia da (proiektu horretan UPV/EHUko, La Lagunako Unibertsitateko, Valentziako Unibertsitateko eta Sevillako Unibertsitateko ikertzaileak biltzen dira). Era berean, "*European Social Law and Seafarers' rights*" Jean Monnet proiektuko ikertzaile nagusia da. Bestalde, estatuko zein Europako askotariko ikerketa proiektutan parte hartu du ikertzaile gisa, hala nola Europako Batzordeak finantzatutako eta Nantesko Unibertsitateko Patrick Chaumette irakasleak zuzendutako ERC-Advanced Grant "*Human Sea*" proiektuan. Ezagutzaren transferentziarekin lotzen diren jarduerak dira haren ohiko kezketako bat. Horretarako, zenbait kontratu egin ditu Euskal Autonomia Erkidegoko eta Estatuko erakunde publikoekin eta pribatuekin zein nazioarteko organismoekin edo erakundeekin.

Prestakuntzaren ikuspegitik, orain arte doktorego tesi bat zuzendu du eta une honetan beste bi tesitako memoriak zuzentzen ari da. Fotinopoulou irakasle iraunkorra da lan harremanen arloko profesionali zuzendutako foroetan, eta, UPV/EHUko ohiko irakaskuntzaz gain, eskolak eman ditu Espainiako eta atzerriko beste unibertsitate batzuetan ere.